

ELKARRI-REN MANIFESTAZIOA. Politika mundua nahasirik dagoen honetan, adostasunak eta baretasunak tartea hartu zuen atzo Bilbon, Elkarri-k bake akordioaren alde deitu elkarretaratzean. PP izan ezik, alderdi guztiek bat egin zuten pankarta bertsuaren atzean.

GARRAKZIOAK

JOSEBA EGIBAR

(EAJren bozeramailea)

«Bakea lortzeko bidean beste urrats bat egiteko balio izango duela espero dut»

JONE GOIRIZELAIA

(Batasuneko legebiltzarkidea)

«Bake Konferentzia baliagarria da; ideiak alderatzeak ekar dezake gatazkaren irtenbidea»

GORKA KNÖRR

(EAKo idazkari nagusia)

«PPk eta PSOEek ezin dute jarraitu berekin bat ez dena indarkeriaren konplize dela esaten»

GEMMA ZABALETA

(PSE-EEko legebiltzarkidea)

«Elkarrizketa da itxaropen bide bakarra gatazka gainditzeko»

IDOIA ZENARRUZABEITIA

(Jaurlaritzako lehendakariordea)

«Bakea lortzea da xede behinena, eta denen arteko elkarrizketaren alde dago Jaurlaritza»

GASPAR LLAMAZARES

(IUko koordinatzaile nagusia)

«Gizarte zibilak bake aukera bat nahi duela erakutsi du martxak»

GERMAN KORTABARRIA

(ELAko komunikazio arduraduna)

«Herri honek eskubidea du gatazka politikoak irtenbide demokratikoa izan dezan, Estatuaren aldetik batik bat»

TXUTXI ARIZNABARRETA

(LABeko komunikazio arduraduna)

«Garrantzitsua da joera eta alderdi ezberdinak foro batean biltzea»



ALFREDO ALDAI / EFE

ERAGILE POLITIKOAK. Manifestazioan Jaurlaritzako eta alderdietako ordezkariak izan ziren. Argazkian, lehen lerroan Gaspar Llamazares, Javier Madrazo, Gabriel Inclan, Idoia Zenarruzabeitia, Angeles Iztueta eta Joseba Azkarraga, besteak beste.

Elkarri-k deituta, milaka lagunek manifestazioa egin dute Bilbon bake akordio zabal baten alde

PP ez beste alderdi guztietako ordezkariak bat egin dute bakearen inguruan adostasuna bilatzeko aldarrikapenarekin

Humberto Unzueta | **BILBO**

Bake akordio baten alde milaka eta milaka lagun elkarretaratu ziren atzo Bilbon Elkarri-k deituta. Manifestazioak erakunde- eta alderdi politikoetako ordezkari andana bildu zuen, baita sindikatu eta beste gizarte eragileetako ordezkari ugari ere. Espainiako hainbat bazterretatik etorritako jendea ere ikus zitekeen hiribilduko kaleetan barrena, batik bat Asturias, Bartzelona eta Madrilgoak.

Bakea-Elkarrizketa-Berdintasuna. Akordio zabal bat bakearen alde lelopean egin zuten manifestazioa. Parte-hartzaileek Casilla plazan ekin zioten ibilbideari. Manifestazio buruan Elkarri-ko ordezkariak zihoazen, tartean Jonan Fernandez koordinatzaile nagusia eta, berandu bildu bazen ere, Alec Reid apaiz irlandarra eta Ipar Irlandako bake prozesuan bitartekari garrantzitsua izan zena ere bai.



ALFREDO ALDAI / EFE

Gemma Zabaleta eta Jone Goirizelaia, manifestazioan.

Pitin bat atzerago, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, alderdietako burukideekin nahasita: Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordea; Joseba Azkarraga, Javier Madrazo, Gabriel Inclan eta Angeles Iztueta sailburuak; EAJko EBBko Joseba Egibar eta Josune Aristondo; EAKo idazkari nagusi Gorka

Knörr; IUko Koordinatzaile Nagusi Gaspar Llamazares eta Antton Karrera legebiltzarkidea; Batasuneko Julen Aginako eta Jone Goirizelaia; Aralarreko Iñaki Aldekoa eta Juan Martin Elexpuru; eta Batzarreko Jesus Urra. Alderdi bezala atxikimendurik adierazi ez arren, PSEk izan zuen ordezkartitza atzoko

elkarretaratzean: Gemma Zabaleta eta Daniel Herranz. PPk ez zuen inongo ordezkartitzak bidali «Elkarri-rekin dituen desadostasunak direla medio».

Astiro astiro eta isilean, manifestariak Autonomia eta Hurtado Amezaga kaleak zeharkatu zituzten. Jendetza artean, sindikatueta ordezkariak ere agertzen ziren: ELAko German Kortabarria, LABeko Txutxi Ariznabarreta, CCOOko Josu Oinaindi eta UGTko Koldo Mendez. EILAS sindikatuak, Bakea Orain elkarteak, Madrilgo Foroak eta EAEko Gazte Kontseiluak ere bat egin zuten deialdiarekin.

Bukaeran, Fernandez mintzaldi labur batez udaletxeko eskaileretatik zuzendu zitzairen bildutakoei. Bake akordioa «possible» dela esan ondoren, Bake Konferentziak 16 hilabetez adostasunaren oinarriak eraikitzeari ekin diola gaineratu zuen. Fernandez hitzetan, helburu hori lortu «egingo dugu» eta bildutakoei eskerrak emanez eta «manifestazioak Bake Konferentzia bultzada ematen diola» esanez amaitutzat jo zuen elkarretaratzea.